



# TXIRRITXOLA

8. ZENBAKIA

1993. EKO URRIA

BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

## *Euskararen egunean... Erdarak jai!!*



Negarretan jaio za urriaren 2-a—ohiturari jarraiki—zapatu krudela edozelako jaia antolatzekotan, baina tire, han ibili ziran eskola—kume geheientsuak gora eta behera erdi—uger, erdi-ibilian altxor bila...

Musikoeok osteraz ezin izan eben atara txistu eta danbolinak, ez eta dantxariak abarketak atara, beraz egin beharreko kalejira bertan behera lotu zan.

Halaxe ba, batzuk lan eta lan prestaketan buru—belarri, beste batzu lotuxeago etxean edo tabernan, arratsalderako prestatzen.

Kosta hala kosta, heltzen joan ziran Bakioraino Mañukorta eta Zeberio, xilipurdikoak, eta azkenak baina ez belu, Tapia eta Leturia bikainak. Eta


agindutakoak aginen, han hasi ziran bakoitza berean, bertsolariak txiste eta bertso, trikitixa jotasu, barre eta barre Mañukorta eta Zeberioaren xeblekeriak zirela medio, ezin geldirik egon trikitrixaren erruz; eta ostean pailasoak ume eta ez hain umeak txoratzen, nor baino pozago ta gustorago... azkenik kurukoak saio labur baina polita eskainiz. Eta jendea nork altza lekutik? Giro epel hartan inork ez eban etxeko biderik hartu gura...

Urrengorako mahai gehiago, aulki gehiago, jatekoa be ugariago, ekarri beharko dira, jendearen erantzun ona ikusita, ez ba euskaraz ere gehixeago egiten dogun neurri elean. **Hala Bedi!!**

# Abuztuko jaien eritziak

## Bakioko Abesbatza

Orohar, balorazio on bat egin behar dela uste dogu, kultur-ekitaldiak, aurtengo jaietan izan daberen interesa, kolorea eta garrantziaren inguruan. Gaur egun zabalduen dagoen jokaera eta gustoei jarraituz, kirol eta musikari lotuta egintza kulturalik gehienak, hortik ganera, beste gauza oso interesgarri batzuk be izan dira arren. Kirolaren arloan, mota guztietako lasterketa, saio eta nork-gehiagoak ikusi ahal izan doguz, herri kirolak be barruan izan direlarik. Musikari dagokionez, bestalde, gusto askotako soinulari eta abeslariak izan doguz; lehengoak zein oraingoak eta herrikoiak zein kanpokoak. Jaien hasierako pregoiak adierazten ebanez, aurtengo San Juan Dolazak, uda guztian zehar izan diren kultura- ekitaldiei jarraipen egoki bat emon deusie, benetako kolofoi bat osatuz.



## Itxas-Alde Dantza Taldea



Bakioko jaiak aurten kulturaliki ez dira ondo egon euskal kirol arloan izan ezik, zeren eta arlo honetan hainbat aukera euki ditugu: pilota partiduak, Iparraldeko herri kirolak, aizkolariak...

Adibidez musika arloan inor ez da gustora geratu, gazteen ustez ez da egon goi mailako rock talde bat ere ez, eta zaharragoak ere ez dute euki beraien gustoko orkestarik.

Jendearen ustez, antzerki on baten falta dago jaietan.

Ea datorren urtean hutsune hauek betetzen diran.

# Abuztuko jaien eritziak

## Eskolako gurasoen eskutik jaietako parte-bartzea

Zer dira jaiak?

Lan guztiak utzi eta ondo pasatzea, nahiko barre, dantza eta jolas eginez, bai eta hainbat ekintzetan parte hartzea beste batzuei ondo pasa eraginez.

Gaur egun jaiak asko aldatu dira; lehenago urte guztia itxaron behar izaten genuen jaiak ospatzeko, orain ostera kotxeen bidez beste herri batzuetako jaiak edozein egunetan ospatzen ditugu. Beste alde batetik lehenago egunez ondo pasatzea lortzen bazan, orain aldiz, gabaz disfrutatzen da nahiko tragu egin ondoren, gau pasa eginez.

Aurtengo jaietan ez da ikusi kuadrilla edo talderik jaiak animatzen. Maratoian ere jende askok hartzen zuen parte, ume, gazte zein heldu. Aurten ez dogu euki aukera hori. Bizikletazko igoera ere euki dogu eta nahiko gogorra izan arren, jendeak parte hartu zuen, ekintza horrek bere grazia mantenduz.

Gaueko dantzetan parte hartzen zen, egunez



osterara gitxi.

Uste dugu ekintza asko egon arren, gehienak espetakulo bezala izan direla eta parte hartzeak gitxi.

**Eskolako guraso elkartea**

## Beste eritzi batzuk

**Galderak:**

**1- Zer suposatzen zuten lehenago zuretzat jaiak eta zer orain?**

**2- Herrikoiak direla uste dozu ala galdu egin dute usain hori?**

**3- Zertan hobetu beharko lirateke?**

**4- Jaietan parte hartzea garrantzizua al da zuretzat? Hartzen duzu? Hartuko zenuke?**

1- Lehen gehiago pentsatzen genuen jaietat, hau da, ailegatzeko gogo biziak genituen, belurarte irtetzeko, barraketan ibiltzeko, lagunekin ondo pasatzeko, azken finean dibertitzeko. Gaur ere gogoak daukagu jaiak heltzeko, baina beste era batera, ez da berdina, gaur gu bezalako gazteak jaiak heltzea nahi dute, berbenara joateko eta akohola edateko, egun horietan inork ez dizuelako ikusten eta ligeak egiteko.

2- Lehen gauza gehiago egoten zen eta aurten ez da egon ezer ere ez. Egoten ziren, goitibereen bajadak, sokamuturra, errekatik bajada eta beste gauza asko eta guzti honek animazioa ematen zion herriari. Konparsak ere galdu egin dira, lehen konkURSOak egiten ziren eta orduan jendea animatu egiten zen.

3- Guk uste dugu konkurtsu gehiago egin behar direla: tortilarena... Berbenari buruz hitzegiterakoan, egun bat ez bada ere, gazteentzako talderen bat ekarri, hau da, ez betikoak. Berbena baino arinago kontzerturen bat ipini eta horrela jende gehiago joango lirateke (SU TA GAR edo E.H. SUKARRA edo horrelako talde bat).

4- Jaietan parte hartzeak garrantzia dauka, zeren eta inork ez badu parte hartzen beste urte batzuetan ez da ezer egingo. Gure herriko jaietan parte hartzen dugu, gure herrikoak direnez zerbaitek inpusatzen gaitu bertan parte hartzera.

**Olatz eta beste batzuk**



*Itziar, Isabel, Bea, Olvido, Amaia, Fina*

1- Lehenago jaiak ilusio gehiagokin hartzen nituen, orain ez da berdina. Lehenago jendea gehiago sartzen zen jaietan, orain ez, eta udaletxeak ez du gogo handirik jendea motibatzen.

2- Galdu egin da usain hori, gauza gitxi lortuten da.

3- Hobetu gauza askotan, baina garrantzizkoena jendea motibatzea da eta baita ere gazteak motibatzea jaietan.

4- Bai. Gitxi. Hartuko nuke ahal dotan guztietan. Pasatzen dana da Bakioko jaietan jentek, gazteak, ikasi behar dutela eta gauzak bakarrik dabiz.

**Aitor eta beste batzuk**

## *Euskararen egunean Mañukorta eta Zeberio Bertsotan*

### **Mañukorta**

Gaur Bakixora etortzeko guk  
eduki degu aukera  
atite amama gazte artean  
gozo gozo bazkaltzera  
txiki ta aundi zar eta gazte  
jokatu daigun batera  
danon artean indartu daigun  
guk maite degun euskera

### **Zeberio**

Bakixo degu txoko polit bat  
gaiñera zoragarria  
alde batean itxaso du  
ta bestean baserria  
bildu gaitezen euskaldun zarrak  
eta elkartu berriak  
danok batera egin dezagun  
egizko Euskal herria

### *Bakioko euskaldun bat Amerikan*

**G. Hemendik eroan dozun euskerak balio izan deutso hor?**

E. Bai klaro! Toki ezezagun batera heltzen zarenean hizkuntza lagungarria izaten da eta hemen euskaldunak batzen garenez ez gara galdua aurkitzen.

**G. Hor elkartzen zarieneus-kaldunak, euskara mantenduten dozue? Noiz eta zertan?**


E. Bai mantenduten dugu. Gehien bat tabernetan, meztan, funeraletan eta gero organitzatzen diren txapelketan (mus, pelota etabar). Frontoi inguruan ere elkartzen gara baita euskal jaiak antolatzen direnean.

**G. Euskara fameli artean egiten da bakarrik, edo bada go posibilitaderik zuen seme alabak ikasteko edo hobetzeko?**

E. Egia esan fameli artean egiten doguna daukagu bakarrik. Familitik kanpo ikasteko posibilitate gitxi edo bapez esango nuke nik.

**G. Euskaraz irakurtzen (leidu) dozue ezer?**

E. Bueno, beti dago norbait Euskadiko periodiko edo errebis-tak hartzen dauzena.



**G. Jairen bat egiten dozue euskaldunen artean?**

E. Bai, urtero urtero ospatzen dogu uztailaren 4ean Euskal Jai Nazionala eta aurten 30. urteurrena izan da.

**G. Posibilitaderik badaukazue ofizialki zuen umeak euskara ikasteko, ala zeuen konponketak daukazue gauza horrek egiteko?**

E. Hemen ez dogu horrelako posibilitaderik baina Euskal Elkartearen bekak daukaguz gure umeak Oñate edo Donostira bialtzeko ikasketak egiten.

**G. Hona etortzen zaretenean, zelan ikusten dozue, eus-**

**kara aldetik, Bakioko herria?**

E. Ba nik uste dot gazteak gramatika aldetik asko dakitela baina gero ez dabe hitz askorik egiten, eta nire edadeko jendeak berdin ikusten dot.

**G. Euskaldunak pisurik badozue hor, horko gizartean (sociedad)?**

E. Euskal Etxean batzen gara eta frontoian baina gizartean pisurik...

**G. Zuengana edo zeuek baiño zaharragoengan badago Euskalerriko añorantzarik?**

E. Bai. Bakoitza jaio den herria gauza handia da. Beti zagoz haruntz begira.

## Itxas-Alde Errusian

Joan den Uztailean, Itxas-Alde dantza taldea Errusiara joan zan 16tik 24era. joandako urtean Raduge Errusiar dantza taldea Bakion egon ondorioz guk Voronezh-era joateko aukera euki dogu. Bertan, Moskutik 600 km-tara dagoen hiri batetan egon ginen.

Hiri honek 1.000.000 bizilagun ditu, historio handiko hiri bat da, han bizi izan diren guda guztietan hiri estrategiko bat izan dalako, eta gainera bertan sortu zalako lehenengo guda flota, Pedro I El Grande-ren denboratan.

Baina gu ez ginen joan turismo egitera, baizik eta dantzatzerara. Jende asko etorri zen gure 6 ekitaldietara, hauetatik 3 antzerkietan izan ziren, 2 umeentzako kanpamentuetan eta azkena atrakzio parke batetan. Inoiz baino hobeto dantzatu genuen, ilusio handiaz joan ginen eta.

Euskal dantzak errusiar jendearen gustokoak izan ziren, batez ere Zuberoa dantza.


Azkenengo eguna Moskun pasatu ondo-

ren, Bakiora etorri ginen.

Esperientzia hau oso atsegina eta interesgarria izan da, zeren eta zenbat neska mutil 13urteetik 25 urterakoak joan ahal dira Errusiara dakitena erakusten?

Baina ez da izan dana hain polita, zeren eta bidai hau egiteko diru eta ahalegin guztiak geuk geuretara lortu behar izan ditugu, eta noski Bakioko herritarren laguntzarekin ere.

Bakion oraindik bidai hauek ez dutela ezertarako balio, pentsatsen duten pertsona batzuk badaude... Zuk zer uste duzu?



## Aurrera Begira



• **URKITZA IKASTETXEA:**

Urkitze Ikastetxeak, Bakioko Eskolak, beste kurtso bat hasi du. Oraingoan 3 urteko ikasleen kopurua handi xamarra da, hau da, zortzi neska-mutiltxo. Eskolako urteurrena bezala: **zortzigarren** urteurrena ospatuko baitugu azaroan. Ordutegia pixkat aldatu da aurton, eskola hau erreformarako prestatzen ari delako. Ea ikasle, irakasle, guraso eta herritar guztiok betiko gogoarekin jarraitzen dogun.

### *Itxas–Aldereren*

#### *Agurra*

*Gazte sentitzen bazara,  
eta Itxas–Aldereren ekintzetan  
parte hartu gura badozu,  
dantzatzu zein musika–tres-  
naren bat jotzen, gonbidatuta  
zagoz gure taldekoa izaten.  
Erabaki hori hartzen badozu,  
etorri zintzatekez gure en-  
tsaio tokira, Patronatoko  
eskola zaharretara, edozein  
zapatuan, eguerdiko 12etatik  
arratsaldeko ordu 2etara,  
Urritik hasita.*

### *Bakioko abesbatzaren ekitaldiak*

Gure azken kanta–saioa Euskararen Egunean kokatu da. Aurreko urteetan lez, gogo biziz parte hartu dogu gure euskara maitearen alde ospatu ohi dan jaialdian, egunari dagokionez, euskarazko abestiak eskeiniz.

Azaroaren 15ean, Mungiako zahar–saridunen etxean antolatutako aste kulturalaren hasiera–ekitaldian abestuko dugu. Saio honetan zazpi bat abesti aurkezteko asmoa daukagu, mota ezberdinetakoak: sakroak, habanerak, baltz espiritualak eta, zelan ez gure sen eta nortasunari jarraituz, baita euskal kantak be.

Azkenez, urteari amaiera emoteko, gabonetako kantaldia aurkeztuko dogu. Kantaldi hau, jakina, gabon abestiz osotuko da eta bertan. orain arte abestu ez doguzan kanta berri batzuk eskeintzea dogu asmo–helburu.

Hortik aurrera be izango doguz beste ekitaldi batzuk baina hurrengo Txirritxolan azalduko deusueguz.

**Bakioko Abesbatza**

## Euskaraz Bizi

### Irakurle:

Aurten ere izango duzu aukera euskaraz, gure hizkuntza, idatziz erabiltzeko.

### Zai egon zaitez

Abendurako, 15a baino lehen, aurkez ezazu zure ahale-gintxo. Orain nahiko erraz uzten dizugu.

Edozein ipuin asma dezakezu, Bakion kokatua bada, hobe.

### Anima zaitez

(Arauk azaroan eukiko dituzu eskuetan)



### Herri eskolak Zergaitik?

Murrizketak edo ebakuntzak? Aurrekontu txikietatik egiten ikustera ohituta gagoz, eta oraingoan herri-eskolei suerta jake, gitxike, gitxike hasi dira eskolak ixten, "rentableak" ez ei dira eta "Educacion"eko jakintsu batzuren ustez, baina ba ote dauka preziorik norberaren herrian ikasteak? Herrien etorkizuna herritarron beharraz, lanaz egingo da; horregaitik da inportantea umeak herrian bertan –Bakion nahiz Gatican– Haztea, Ikastea, elkarrekin ibiltzea. Eskola itxiaz geure herria ere zarratzen dabe neurri batean, eskolari eustea geroari eustea da.

## 113 milioi

10.000 euskara ikasle subentzio barik lotuko dira aurten, halaxe erabaki dabelako HABE-k eta kultura sailburuak, Joseba Arregik.

Astakeri honen neurria hobeto ulertzeko aski da datuok ikustea: HABE-k "Beranak" diren zentru ofizialak 500 pta ikasle eta orduko kopuruagaz subentzionatzen dauz. Euskaltegi libreei kontrara, 42 peseta ikasle eta orduko emoten eutsen, baina orain diru apur hori ere kendu dautse, hau da, 0 peseta euskaltegi libreei.

Eta, zein da ba euskaltegi libreen pekatua? Ba txikerrak izatea baino ez, 50 ikasle baino gutxiago edukitea, lokal propio zabal batzu ez eukitea.


Zeren bila dabil HABE? Neurrigaz HABEk eskualde buruetan –Mungia, Gernika, Zornotza, ...– daukazan euskaltegiak indartu eta inguruko herri eta auzoetan zentroak desager-tarazi gura dauz. Hau da, bere zentroak mantendu edozelan, presupostu handiko zentroak eta diru publikoz mantenduak direnak, nahiz eta era horretara inguruko herrien eta auzoen euskalduntzea oztopatu. Azken fienan "Helduen Euskalduntzerako" ei diren **3.000.000.000 ppta. HABE-k** bereak diren euskaltegiak eta satellite daukazan beste batzu mantentzeko erabiltzen dauz, beuren funtzionari-soldatak, idazkari, zuzendari, egoitza ederrak etabar. Eta Euskal Herriko txoko guztietara ailegatzeko ahaegintzaren diren **euskaltegi libreei ogi-apurrak bere ukatzen.**

HABEren zain ba gagoz euskerak dereak egin dau!

**Jonjo Agirre**  
**Bakioko aek-ko kidea**

## Txirritxolako Argazkigilea

**Jorge Busturia:**  
 Ordua egin zaigu  
 orrialde hauetatik  
 gure aldizkariko  
 argazkigile nagusiari  
 agur bero bat  
 eskeintzeko. Bere  
 laguntza eta  
 disposiziorik gabe  
 ezingo litzateke  
 hainbat lan osotu.  
**Eskerrik asko!**  
 Euskara Batzordea



## Denborapasak

*Hizki Salda honetan 7 mendien izenak aurkitu*

### Txistreak

- Ama, ama, ea dakizun zergaitik farolak diren hain altuak?

- Txakurrek ureztatzen dituztelako.

Aita telebista ikusten dago eta bere semea etortzen da:

- Aita, aita! Non daude Alpeak?

- Ez dakit. Amari galdetu, berak dena gordetzen du eta.

Ea dakizun nola hil zuten Mimosin.

Armairutik salto egin zuenean, toalla kenduz.

Zer da neska beltz bat haurdun?

"Kinder Sorpresa" bat.

P	J	K	I	L	A	N	B	O	T	O	B
M	R	A	O	R	S	L	U	E	A	I	U
T	U	K	T	S	L	B	D	E	M	N	R
N	X	A	X	A	Z	T	S	I	A	L	G
J	O	L	U	T	G	H	J	I	B	D	O
R	K	P	I	U	O	L	H	S	M	J	A
I	A	R	D	B	R	N	M	O	T	K	S
S	O	L	L	U	B	E	A	E	I	N	R
T	X	M	Z	I	E	B	S	K	A	Z	L
N	B	E	S	H	A	D	L	R	O	H	E
R	A	L	T	M	L	O	M	T	P	O	N
A	I	Z	K	O	R	R	I	A	I	R	O

Bi zotz bakarrik  
 mugituz, nola utziko  
 duzu barruan dagoena  
 kanpoan?

